

## Inozenteen egun luze-luze bat

M

unduak eragiten didan neurrigabeko minak eraginda idazten dudala esan dezaket serio, baina ez dut uste arrazoi horrek inori arreta berezia piztuko dionik. Ordea, nire poemak guardia zibilari bertso-lari-txapelketei buruzko ezkutuko informazioa emateko bide bat direla aitortzen badut, orduan bai, batek baino gehiagok hori itsu-itsuan sinestu eta estrofa bakoitzeko puntuak eta komak neurutzen hasiko litzateke, Euskal Herriko Unibertsitateko Udako Ikastaroetan kongresu bat antolatzeraino. Asko gustatzen zait gainerakoei idazteko duten argudioak aurkitu eta irakurtzea, baina nik desilusio pixka bat hartzen dut nire zergatiengan pentsatzen dudanean, zergatirik ez dudalako. Idatzi, ez dakit zergatik egiten dudan, bizi ere zergatik bizi naizen ez dakidan bezala. Uste dut aspaldi gaingitu nuela helburu jakin batekin idatzi behar den ideia madarikatua, erromesaldi honetako printzipio handiak ere aspaldi gaingitu nituen bezala. Idaztea, edozein eratako idatzia delarik, barne-prozesu erradikala da nigan, eta zer ikusirik ez du efikaziarekin edo propaganda-rekin, gure garaiko idazle gehienek idazteari ematen dioten erabilerarekin alegia. Idatzi egiten dut. Eta kito. Hori da sakontasunez esan dezakedan bakarra. Baina horrek ez dit eragozten, aitzitik, oso deseroso zaidan errealitate bati adi bizitzea, nire kontzientziak lagunduta, gizaki orok gainerako gizakiekin bere harremana nola konpondu beharko lukeen erabakitzea. Eta gauzak dira direna, haiei begiratu edo ez, haiei kasu egin edo ez, eta gauzak ez dira diren bezalakoak ni ohartzen naizenean edota nik hala direla ofizialki erabakitzen dudanean. Eta niri gauzek, munduko gauzek, gizakiaren gauzek, min ematen didate. Are gehiago gaur, den-dena

CONCETTA PROBANZA



José Luis Padrón



Sarasola



Urkiza

gezurraren marketina den honetan. Eta errazena, sinpleena hori da, gezurrean eroso bizitzen jarraitzea. Gezur diren gauzak eta gizakiak egin behar dira, kontsumoaren kumeak gogaitu nahi ez baditugu, gezur diren gauzak eta gezur diren gizakiak kontsumitzen jarraitu dezaten. Horrela dena da

eramangarriago. Gabonetako jaietan bezala. Gehienen borondatearen kontra iristen dira, inork gutxik ospatu nahi ditu, enbarazu galanta baino ez dira etxekoandre guztientzat, depresioa ere sortzen dute, eta, hala ere, egin-egin behar dira hipokresia zurienaren paradigma diren erritual, bazkari eta afari meta-patetiko horiek guztiak. Amamarengatik da, umeengatik da, beti dago aitzakia boteretsuren bat. Eric Cantonak bankuei boikota egitera deitu zuenean, denak batera bankuetatik dirua ateratzea korrika irten ordez, zabor-hipotekak zintzo ordaintzeari uzteko baldurrak jota gelditu ginen etxean. Eta etxean diot, etxea gurea balitz bezala, baina hori ere haiena da, gure askatasuna haien jabego den bezala, erabateko jabe diren askatasunaren gurasoena alegia. Holakoak dira jainko berriak. Gehiago balio du gutxi horien ohoreak, gu guztion bizitzak baino. Haiek pilatzen dituzte gure edertasun eta egia guztiak, haiek baimentzen dute gure salbazioa, haiek zigortzen gaituzte sinpletasun txikienera, halabeharrezko tolesgabetasunera. Eta zer egin dezake gizaki xalo sinplifikatu batek errealitate guzti horren

aurka? Zer egin dezake gizaki xalo sinplifikatu batek *Wikikararen* garaian? Txillida-Leku museoak atek itxiko ditu abenduaren 31n. Eskultorearen seme Luis Txillidak jakinarazi duenez, krisiak eragingo du itxiera. Lasai, ez dauka inork egin beharrik, nik neuk itsatsiko diot nire bizkarrari inozenteen panpina. ■

Niri munduko gauzek, gizakiaren gauzek, min ematen didate. Are gehiago gaur, den-dena

gezurraren marketina den honetan.

Eta errazena, sinpleena hori da, gezurrean eroso bizitzen jarraitzea